

San Donato (***San Donato (Berain) Maiatzak 27 larunbata***



Berain (gaztelaniaz *San Donato*) Nafarroako Andiaiko mendilerroan kokatuta dagoen mendi ikusgarria. Sakana bailaran dago, Euskal Herriko erdigunean, eta duen garaieragatik oso irudi ezaguna da ingurumarietan.

1.494 metro garai da. Goian dagoen San Donato basiliza Nafarroakoetan altuen dagoena da, eta bertan San Donato eta San Kaiet gurtu ohi dira.

Badirudi mendiaren lehengo izena **Berain** zela. *Berain* formaren lehenengo agerpena 1920koa da, Espainiako *Instituto Geográfico y Catastral* erakundearen mapa batean.

Beste askotan bezala, non bertako toponimoa kristau-izen batez ordezkaturik izan den, Elizaren eraginez, batzuek mendiaren tontorrean dagoen San Donato basilizaren izena ematen diote mendiari, baina inguru hori ondo ezagutzen duenak biak bereizi ohi ditu.

Oso egitura bitxia duen mendia da eta bere itxura asko aldatzen da batetik edo bestetik ikusita. Tontorrean erpin geodesiko handi bat, txartelontzia eta San Donato ermita topatuko dituzue. Ermitaren alderdi bat aterpea da, eta duela urte gutxi berritu dute.

Irteera ordua: 7:00etan Estadioko atetik. Itzulera 17:00etan Gasteizen.

Zailtasuna: Andia mendilerroaren zailtasun handienak arrokazko lurzoruan datza. Gure kasuan teknikoki igoera erreza izango da. Egunean zehar 1000ko metro desnibela pilatuko dugu.

Ibilbidea: Unanu herritik hasiko dugu ibilbidea ekialdeko norabidea hartuta bide eroso batetik. Hasi eta denbora gutxira, bidea gero eta denibel handiagoa izaten hasiko da, malda handiagoa izanez. Egunaren lehenengo parte modu honetan emango dugu, altuera irabaziz gailurrera iritsi arte. Behin mendilerroaren punturik altuenetara heldu eta gero hegoaldeko norabidea jarraituko dugu.

Altuera hontatik mendiari ematen dion izen bereko ermitara hurbilduko gara. Bertan lasaitua hartuko dugu eta hamaiketako hartzeko aprobetxatuko dugu ingurumenaren ikuspegietatik gozatuz.

Bapo jan eta gero puntu altu honetatik jarraituta Lizarragako portura hurbilduko gara.



Irteeraren zati honetan ibilbidea eroso bihurtuko da eta laua. Portuan autobusa itxoiten izango dugu Gasteizera buelta egiteko.

Lurzorua:: Mixtoa arroka eta belarra, zonalde kárstikoa izanik arrokako, basoetako eta larre inguruneak topatuko ditugu. Nahiz eta, gure ibilbidea teknikoki erraza izango den.

Erritmoa eta ordutegiak: Denok lasai eta gustora joateko erritmo bat eramango da, hau da, taldera moldatutakoa, ez ditugu markak hautsiko. Ibilbidean zehar hainbat geldione egingo dira. Egunean zehar ez dira oso luzeak izango ez ozteko, eta luzeago bat bazkaltzeko.

Beharrezko materiala:

- Arropa beroa
- Uretako Txaketa
- Txanoa eta guanteak
- Eguzkirako betaurrekoak
- Bastoiak (jeitsietarako gomendagarriak)
- Eguzkitako krema
- Mendi edo trekking-eko botak "eginak" sola berriarekin.
- Eguna pasatzeko jana eta edaria.

Zuen gidak

Ibai Rico: Geografoa, glaziologoa eta geografi irakaslea UPVn Patagonian, Artikoan eta Himalayan ikertzen ibili da. Alpinista eta eskalatzaila hainbat mendikate bisitatu ditu, baita pirineoak puntarik punta HRPtik zeharkatu ere. Alpeetan, Kilimanjaron, Kaucaison, Norbegian eta Atlasean izan da lanean beste batzuen artean.

Unai García: Eskarmentu handiko alpinista, Pirineotan, Alpeetan eta Atlasean ibilitakoa, mendi-ertaineko gida eta irakasle moduan orientazio, autoreskate, lan bertikaletan eta ekintza gidatuetan izaten da lanean. 2013tik geroztik Estadioan ere gida lanetan dihardu Pirineotan eta Euskal mendieetatik.